

sanlorentzoak • Ikaztegieta

Paella artean hasiko dira jaiak

Koadrilek paellak egingo dituzte gaur; bihar, berri, Etsaiak, Ekon eta Gaitza taldeek kontzertua eskainiko dute

Nerea Pikabea | IKAZTEGIETA

Txupinazoaren hotsak esnatuko ditu gaur goizean goizetik ikaztegiarrak. Goizeko ha-maikak aldera emango zaie hasiera lau eguneko jaiak. Gaur hasi eta igandera bitartean jai giroan murgilduko da *madril txiki*-en herria.

Urte osoan prestatutako asmoak egun hauetan gauzatu ahal izango dira. Egitaraua zabal da, era guztietako ekintzak aurki ditzake jai giroan murgildu nahi duenak. Suziriaren ostean, buruhandiak irtengo dira kalera parean jartzen zaien oro astintzera. Buruhandien astinduetatik libre geratu bezain pronto, paella prestatzeki ekingo diote koadriletako sukaldariak. Ondoren, elkarrekin bazkalduko dute herriko plazan.

Arrozak emandako energiak ez dira batere gaizki etorriko arratsaldeko ekitaldietarako, mus eta toka txapelketarako, alegia. Muserako zaletasuna dutenek bikotea aurkitu beharko dute lehendabizi, eta haien irudimena eta inteligentzia martxan ipini aurkariei irabazteko. Punteria kontuak maiteago dituztenek toka txapelketa izango dute aukeran. Ondoren, sardinak janez afaria egiteko aukera izango da herriko frontoian, eta sagardoaz bustiko dituzte ikaztegiarrek eztarriak. Hortaz arduratuko da herriko Begiristain sagardogilea.

Ainara eta Miren Mendizabal herriko trikitilariak alaituko dute lehen gaua goizaldera arte.

Bihar rock kontzertua

Uda pasatzera Euskal Herrira etortzen diren Saharako haurrei ongietorria egingo diete herriko gaztetxoek bihar goizean, eta elkarrekin hainbat jolasean aritzeko aukera izango dute: zezen txikiekin eta *pony*ekin, besteak beste.

Edadetuek ere bihar izango dute elkarrekin otordua egiteko aukera. Herrigintza elkartearen izango da hori, arratsaldeko ordu biak aldera.

Jaietako ekitaldirik garrantzitsuenetakoa, ordea, gauean izango da, herriko frontoi zaharrean. Etsaiak, Ekon eta Gaitza rock taldeek elizaren eta frontoi zaharraren hormak astinduko dituzte. Gaueko hamaiketan hasiko da kontzertua; dohainik izango da, eta goizaldera arte entzungo dira rock doinuak.



EGUNKARIA

Preso eta iheslarien aldeko kontzertuan Etsaiak taldeak parte hartuko du bihar.

Preso eta iheslarien alde izango da bildutako dirua. 80ko hamarkadan euskal rocka bultzatzeko hasitako ohiturari jarraipena emango dio kontzertuak.

Jaiak luze

Larunbatean, San Lorentzo egunean, txakolina dastatzeko aukera izango da Zarauzko Basa-lore etxearen eskutik, eta arratsaldean pilota partiduez gozatzeko aukera kiroldegian. Herriar guztiek elkarrekin afalduko dute, eta Etzakit taldea arituko da musika jotzen.

Igandean, ordurako indarrak ahituta, euskal dantzez gozatzeko aukera izango da. Amezketako Arkupe taldea eta herriko haurrak arituko dira dantza ikuskizuna eskaintzen. Arratsaldeko hiru eta erdiak aldera

EGITARAUA

GAUR

Egun osoan: Haurrentzako parkea egongo da.

11:00: Txupinazoa.

Ondoren: Buruhandiak.

12:30: Paella prestatuta.

14:00: Koadrilen bazkaria.

Ondoren: Mus eta toka txapelketa egingo da.

20:00: Sardina jatea, ikaztegiarako Begiristain sagardoarekin.

23:00: Ainara eta Miren Mendizabal trikitilari ikaztegiarrek.

BIHAR

12:00: Haurrentzako ekitaldien hasiera, marrazkiak eginez.

13:00: Haur sahararrei ongietorria egingo zaie.

14:00: Haurren bazkaria. Edadetuen

bazkaria, berri, Herrigintza elkartearen egingo da.

15:30: Haurren jolasak.

17:30: Zezen txikiak eta *pony*ak.

18:30: Txokolata jana.

23:00: Preso eta iheslarien aldeko kontzertua: Etsaiak, Ekon, Gaitza taldeak arituko dira.

ABUZTUAK 10, LARUNBATA

11:00: Meza.

Ondoren: Txakolin dastaketa Zarauzko Basa-lore etxearen eskutik. Pintxoak doan

18:00: Pilota partidak: Zabala-Azpitate bikotea Alonso-Iriarteren aurka. Eta Elurbe-Esnaola bikotea Renobales-Mujikaren aurka arituko dira.

21:00: Herri afaria.

Ondoren: Etzakit taldearekin dantzaldia izango da.

plater jaurtiketa izango da. Kasu honetan ere hara hurbiltzen direnen punteria proban jarriko da. Pixka bat geroxeago, arratsaldeko seietan, herri kirolletako ikuskizuna izango da. Bi talde elkarrekin lehian arituko dira, eta kirol hauexek egin beharko dituzte: aizkora, trontza, txingak eramatea eta koskolak biltzea.

Azkenik, bertsoak entzuteko gogo duenak gaueko hamaiketan azaldu beharko du herriko plazara. Han izango dira Jexux Mari Irazu, Igor Elortza, Unai Iturriaga, Jokin Soroazabal eta Sustrai Kolina bertsolariak. Eneritz Otamendi orendainarrak emango dizkie aginduak guztiei. M-n EZTEN taldeak emango die amaiera aurtengo San Lorentzo jaiak.

ATE ETA LEIHO ISOLATZAILEAK

aluminio
arotzeria

ERAKUSKETA:
Marino Tabuyo, 13
DONOSTIA
Tel.: 943 27 20 45

pefran
Berriozar Industrialdea, 7
Tel.: 943 65 41 92

LANTEGIA:
IKAZTEGIETA
Tel.: 943 65 41 92

-ZUBI TERMIKOAREN
HAUSTURA
-POLIURETANO
-BULEGO IXTEAK
-PERTSIANAK
-BAINUGELAKO
MANPARAK
-BITRINAK

MUSA, S.L. Tailerrak

Errepide Nazionala N. 1 - 431 Km. - Tel.: 943 65 20 38
20267 IKAZTEGIETA

PANELFISA

Torlojugintza

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

LANTEGIA: Errepide Nazionala 1, 429 km-a
Tel.: (943) 65 53 53 / Faxe: (943) 65 49 42 - 65 49 36
e-mail: info@panelfisa.com • www.panelfisa.com
Aldaba-Berazubi Industrialdea
20 Posta-kutxatila - 20400 **TOLOSA** (Gipuzkoa)